

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Onestea 2020ko enplegu-eskaintza publikoari dagokion psikologo-plaza 1 hautatzeko prozesuaren oinarri espezifikoak eta deialdia egitea hautapen-prozesurako. Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartutako eta ALHAO-ren 89. zenbakian 2020ko abuztuaren 10ean argitaratutako erabakiaren bidez onetsi zen prozesua

2021ko martxoaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, honako hau ebatzi da:

LEHENENGOA. Onestea Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren bidez onetsitako eta 2020ko abuztuaren 10ean ALHAO-ren 89. zenbakian argitaratutako 2020ko enplegueskaintza publikoari dagokion psikologo plaza 1 hautatzeko prozesuaren oinarri espezifiko hauek, eta hautapen-prozesuaren deialdia egitea:

PSIKOLOGO LANPOSTUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa. Deialdian sartutako plazak

2020ko enplegu-eskaintza publikoaren barruan, psikologo plaza bat (1) hornitzeko deialdia egiten da, zehazki, Audio Udalaren lanpostuen zerrendako 8006 kodea duen lanpostuari, hau da, adikzio teknikariari dagokiona, sarrera libreko lehiaketa-oposizio bidezko hautapen-prozesuaren bitartez, eta hautatze-prozeduraren osagarri gisa praktikaldi bat gainditzeko beharraz. Deialdian eskaintzen den lanpostua A taldekoa da, A-1 titulazio-azpitaldekoa, administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa, goi mailako teknikarien klasekoa, eta A1 taldeko ordainsariekin.

— Plaza batek (1) euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna du nahitaezko betekizun gisa.

Deitutako plaza kopurua handitu ahalko da plazaren bat hutsik geratzen bada, eta, deialdi honetan sartu ahalko dira alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez. Hala badagokio, gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin behar da kopuru-handitze hori.

Bigarrena. Betekizunak

Oinarri orokorretan zehaztutako betekizunez gain, izangaiek Psikologiako Lizentziatura titulu akademiko ofiziala edo gradu baliokidea eduki beharko dute, edo hori jaulkitzeko eskubideak ordainduak izan beharko dituzte.

Azterrian eskuratutako titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Hirugarrena. Azterketa-eskubideak

Hautaprobetan izangai gisa izena eman nahi duten pertsonak azterketa-eskubidearen tasak ordaindu beharko dituzte, Audio Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalean jasotako baldintzekin bat.

Nolanahi ere, azterketa-eskubideen ordainketa eskabideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da.

Laugarrena. Instantziak

Hautapen-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonak udal webgunean (www.laudio.eus) eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete eta aurkeztu beharko dute, edo Audio Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan, bertan bete eta aurkezteko. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 16.4 artikuluan zehazten diren lekuetan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Eskabidea aurkezteko eta dagokion tasa ordaintzeko epea 20 lanegunekoa izango da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, hautapen-prozesuan parte hartzeak esan nahi du adostasuna agertzen dela hautapen-prozesuaren edozein unetan Lan Arriskuak Prebenitzeko Udal Zerbitzuak egokitzen jotzen dituen azterketa edo kontrolak egin ditzan, eskatzen den gaitasun funtzionala egiaztatze aldera.

Oinarri orokorretan aurreikusitako ondoreetarako, eta oinarri hauetan jasotako hautapen-prozesuetatik eratorritako lan-poltsen eratzeari dagokionez, izangaiek eskabidean adierazi beharko dute haien datuak beste administrazio publikoei lagatzea onartzen duten ala ez. Zehazki, datu hauek laga lekizkieke: Izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia, helbide elektrikoa eta prestakuntza maila. Datuen lagapenaren xede bakar eta eksklusiboa izango da administrazio publikoek lankaintzak egin ahal izatea Legean aurreikusitako baldintzetan. Horiek horrela, lagatzearen aurkako esanbidezko adierazpenik egon ezean, euren datuak lagatzea onartzen dutela ulertuko da.

Bosgarrena. Hautapen-prozesua

Lehiaketa-oposizio bidezko sarrera librearen bidez hautatuko dira izangaiak. Horiek horrela, oposizio fasearen ostean, lehiaketa fasea hasiko da, zeinetan merituak baloratuko diren, lehenik eta behin oposizio fasea eginda, eta, hautaketa-prozesuaren zati gisa, praktikaldi batekin osatuko da.

5.1. Oposizio fasea.

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu, denak nahitaezkoak eta kanporatzaileak.

5.1.1. Lehenengo ariketa.

Test moduko 120 galdera erantzun beharko dira, erantsitako gaitegiaren gaineko lau erantzun desberdin emanda. Ariketa horretan, erantzun zuzen bakoitzak puntu bat emango du eta erantzun oker bakoitzak 0,33 puntu kenduko ditu. Erantzun gabeko galderak eta erantzun bakoitzek ez dute penalizaziorik izango.

Horiek horrela, 120 puntukoa izango da lor daitekeen puntuazio zuzen handiena (beraz, 60 puntu lortu beharko dira, gutxienez, proba gainditzeko), hau da, azken puntuazioko 20 puntu.

5.1.2. Bigarren ariketa.

Kasu teoriko edota praktiko baten edo batzuen inguruko galdera batzuei erantzun beharko zaie. Galderak plazaren berezko zereginekin edota erantsitako gaitegiko gaiekin erlazionatuak egongo dira.

Proba honek dirauen bitartean, lege-testuak, jurisprudentzia bildumak eta kontsulta liburuak erabili ahalko dituzte izangaiek noiznahi, betiere, paperezkoak badira eta haiek ekartzen badi-tuzte. Ez da onartuko inongo gailu edo euskarri elektronikorik erabiltzea.

Ariketa honetan baloratuko dira arrazoitze-gaitasuna, planteamendu nahiz formulazioen sistematika eta ondorio-formulazioa, eta lege nahiz arau aplikagarrien ezagutza eta interpretazioa.

Ariketa honi 0 eta 20 punturen arteko puntuazioa emango zaio, eta, gainditzeko, 10 puntuko puntuazio minimoa lortu beharko da.

5.1.3. Hirugarren ariketa.

Nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten plazetan.

Euskarako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba izango da, epaimahaiak zehaztuko duen eran; horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak aplikatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Edonola ere, azkena izango da euskara ezagutzak egiaztatzeko ariketa hori, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hautapen-prozesuetan hizkuntzaeskakizunak egiaztatzeko zehaztua duen egutegira moldatuko da.

Ez dute ariketa egin beharko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak jaulkitako 3. hizkuntzaeskakizunaren egiaztagiria edo Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera euskarako C-1 maila egiaztatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9koa 297/2010 Legearen 3. artikuluan eta hurrengoetan nahiz apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan zerrendatutako beste tituluren bat, betiere, ariketa egiteko data baino lehenago egiaztatzen bada Audioko udaletxean dagokion ziurtagiria aurkeztuta; hori egin ezean, ez da izangairik salbuetsiko ariketatik.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea baldin eta hizkuntzaeskakizuna Euskara Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua badago; ondore horietarako, partehartzaileak beren beregi baimenduko dio Audio Udalari aipatutako Erregistroan beharrezkoa egiaztatze-lanak egitea.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoan xedatutakoari jarraikiz egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

5.1.4. Puntuazioa.

Lehenengo eta bigarren ariketak nahitaezkoak izango dira eta 0,00 eta 20,00 bitarteko puntuazioa emango zaie; hortaz, automatikoki baztertu egingo dira ariketa bakoitzean gutxienez 10,00 puntu lortzen ez duten izangaia.

Hirugarren ariketan, hau da, euskara proban, gai edo ez-gai kalifikazioak baino ez dira emango, derrigorrezko hizkuntza eskakizunaren arabera.

Hortaz, 40 puntu lortu ahalko dira gehienez ere oposizio fasean.

5.2. Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea amaitutakoan hasiko da lehiaketa fasea, lehenengoa gaingitu duten izangaiekin. Lehiaketa fasean, izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merituen baloratuko dira eta hurrengo idatzi-zatian ageri den merituen baremoaren arabera emango dira puntuak.

Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat egingo da merituen balorazioa, eta, beraz, ez da bestelako meriturik kontuan hartuko.

5.2.1 Esperientzia profesionala.

Esperientzia profesionala baloratzeko, baremo hauen arabera puntuazioa emango zaie izangaiei: Administrazio Publikoan plazaren berezko zereginetan emandako zerbitzuengatik 9,00 puntu, gehienez ere, honela:

— 1,00 puntu toki administrazioetan emandako zerbitzu urte bakoitzeko, edo sei hilabete edo gehiagoko frakzio bakoitzeko.

— 0,66 beste administrazioetan emandako zerbitzu urte bakoitzeko, edo sei hilabete edo gehiagoko frakzio bakoitzeko.

Nolanahi ere, lanaldi partzialarekin edo lanaldi murritzuekin zerbitzuan emandako denboraldiak lanaldi osokotzat zenbatuko dira.

5.2.2. Prestakuntza zikloak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak edota Herri Administrazioaren Institutu Europarrak antolatutako ikastaroez gain, unibertsitateek, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia erkidegoetako hezkuntza sailen menpe dauden ikastegiekin

emandakoak balioetsiko dira, baita edozein ikastegi ofizialek eskusiboki antolatutakoak ere (ministerioak, kontseilariak, merkataritza ganberak, elkargo ofizialak, ziurtagiri ofiziala duen lan-arriskuak prebenitzeko zerbitzua, etab.), betiere, ikastegi horiek jaulkitzen badute bertaratze- edo emate-ziurtagiria eta 2012ko abenduaren 31ren ondoren amaitu badira.

Halaber, alegatzen diren prestakuntza- eta perfektzionamendu-ikastaroek plazak berezko dituen zereginekin zuzenean erlazionatuak egon beharko dute.

Ikastaroan parte hartu izanaren ziurtagirian ez bada ikastaroak iraun dituen orduen kopurua jasotzen, ezin izango da balioztatu, ez bada izangaiak ikastaroaren iraupena egiaztatzeko, ikastaroa antolatu duen erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztuta.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko ofizial bat eskuratzeko ikasketa-plan baten zati diren ikastaroak.

Egiaztatutako ikastaro-ordu bakoitzeko 0,01 puntu emango dira, gehienez ere, 4 puntu eman arte.

5.2.3. Titulazio akademikoak.

Plazari dagozkion eta erakunde edo organismo hauetakoren batek jaulkitako titulazio akademikoak baino ez dira baloratuko:

- Administrazio publikoren batek edo horien menpeko organismo autonomoren batek.
- Administrazio eskumendunaren onespenez balio akademiko ofiziala duten tituluak jaulkitzen dituen ikastetxe publiko edo pribatuek. Nolanahi ere, titulu horien berezko esparru akademikoko gaiak baino ez dira aztertuko.
- Eskatzen diren titulazioei dagozkien elkargo profesional ofizialak. Nolanahi ere, eskatzen diren titulazioak eta kasuan kasuko esparru profesionaleko gaiak baino ez dira baloratuko.

Gehienez ere, 3 puntu emango dira detaile honen arabera:

- Adikzioetako graduondoko titulua edo baliokidea izatea: puntu 1.
- Adikzioetako unibertsitate-master ez-ofiziala edo antzekoa izatea (unibertsitatearen baten master propioa edo antzekoa): 2 puntu.
- Adikzioetako master ofiziala edo baliokidea izatea: 3 puntu.

5.2.4. Informatika-ezagutzak.

Meritu gisa baloratuko da informatika-ezagutzen maila egiaztatzea, KZGuneetan edonoren esku dauden Informazioaren Gizarterako Euskadiko Planaren barruko moduluak eginda eta, horrela ITTxartela lortuta edo organismo publikoren batek jaulkitako beste ziurtagiri ofizialen bat aurkeztuta.

Oposizio faseko lehenengo ariketaren eguna izango da hori lortzeko mugaeguna.

Laudio Udalak ofizioz eskatuko dio erakunde jaulkitzaileari (ITTxartelari) izangaiak eskuratuak titulazioen egiaztapena.

Beste organismo publikoren batek jaulkitako ziurtagiri bat dutenek epaimahai kalifikatzaileak zehazten duen epean egiaztatu beharko du.

Edonola ere, ITTxartelak edo antzeko ziurtagiriak meritua aurkezteko fasean alegatu beharko dira.

0,5 puntu emango da ezagutza-ziurtagiri hauetako bakoitzarengatik, gehienez ere, 2 puntu lortu arte:

Word 2010

Word 2000

Word XP

Word 2003

Word 2007

Excel 2010

Excel 2000

Excel XP

Excel 2003

Excel 2007

Access 2000

Access XP

Access 2003

XP ofimatika

2003 ofimatika

Access 2010

PowerPoint XP

PowerPoint 2003

PowerPoint 2007

PowerPoint 2010

Office XP

Aplikazio baten maila aurreratuko ziurtagiriek aplikazio beraren oinarrizko mailak ezeztatuko dituzte.

Aplikazioen azken bertsioiko ziurtapenek aurreko bertsioetakoak ezeztatuko dituzte.

5.2.5. Puntuazioa

Lehiaketa fasean lor daitekeen puntuazio maximoa 18 puntukoa izango da.

Seigarrena. Prozesuaren emaitza

Hautapen-prozesuaren azken emaitza ariketetan lortutako puntuazioak batuta lortuko da (betiere, gainditutako proben puntuazioa). Berdinketa kasuan, oinarri orokorretan zehaztutakoa bete beharko da.

Behin hautapen-prozesua bukatuta, epaimahaiak udaletxeko iragarkien taulan eta udal webgunean argitaratuko ditu gainditu duten pertsonen behin-behineko kalifikazioak; lortutako guztirako puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira eta esanbidez adieraziko da zer izangai hautatu den. Nolanahi ere, ezingo dira deitutako plazak baino pertsona gehiago hautatu.

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, interesdunek hamar (10) eguneko epea izango dute bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Hala dagokionean, eta behin erreklamazioak ebatzita, hautapen-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Epaimahaiak deialdia hutsik utzi ahalko du baldin eta irizten badio euren burua aurkeztu duten pertsonetako bakar batek ere ez duela lanpostuan aritzeko beharrezko maila.

Zazpigarrena. Dokumentazioa aurkeztea

Prozesuaren emaitzak jakinarazten diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita eta 15 laneguneko epean, hautatutako pertsonak Audio Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte oinarri orokorretan jasotako dokumentuak.

Zortzigarrena. Praktikaldia eta prestakuntza

Hautapen-prozesuaren beste fase bat izango balitz bezala egingo da praktikaldia; lehiaketaren oposizio fasea gainditu duten pertsonak baino ez dituzte egingo praktikaldiak eta, edonola ere, ez dira izango deitutako plazak baino praktikaldi gehiago egingo. Fase hori lanpostu izango duten plazan egingo da, eta, gehienez ere, sei hilabetez, dagokionean iragarriko den egunean.

Ebaluazio-prozedura jarraitua izango da praktikaldi osoan, eta praktikaldian 15 egun natural jarrai edo metatuko ez-bertaratze justifikatuak daudenean baino ez dira etengo. Kasu horretan, praktika-egileak zehatua zegoen praktikaldi osoa egin beharko du.

Izendapena jasotzen duten izangaiek praktiketako funtzionario gisa jasoko dute, udal langileen ordainsariak arautzeko akordioan zehaztutako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute eta funtzionarioei aplikagarri zaien Gizarte Segurantzako araubidean alta emango zaie.

Egoera horrek bere horretan jarraituko du izendatze-ebazpenean adierazten den egunetik plazaren jabetza hartzen den eguna edo praktikalditik kanporatzen den eguna arte.

Praktikaldiak dirauen bitartean, modu jarraituan ebaluatuko dira deitu den plazak berezko dituen zeregin eta atazak behar bezala egiteko beharrezkoak diren trebezia eta gaitasunak, betiere, oinarri orokor hauetan zehaztutako baldintzetan.

Izangaia "gai" edo "ez-gai" kalifikazioak jasoko ditu, eta beharrezkoa izango da gaitasuna erdiestea hautapen-prozesuren fase hau gainditzeko.

Praktikaldiaren edozein unetan, izangaiaren izendapena ezeztatu ahalko da, baldin eta ez badiu betetzen beharrezko gaitasun- edo aprobetxamendubaldintzak. Horretarako, Zerbitzuko arduradunak proposamena helaraziko dio hautapen-prozesuaren epaimahai kalifikatzaileari, eta epaimahaiak, proposamena aztertu ostean, ebatzi egingo du izendapena ezeztatu behar den. Horiek horrela, epaimahaiak dagokion proposamena helaraziko dio alkate-udalburuari, izendapena ezetsi edo bere horretan uztekoa.

Bederatzigarrena. Izendapena eta lanpostuaren jabetza hartzea

Audio Udaleko karrerako funtzionario izateko izendapena oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat egingo da.

Hamargarrena. Aldi baterako enplegu-poltsa

Hautapen-prozesua burututa, lan-poltsa bat eratuko da oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Lan-poltsa hori aldi baterako langileria-beharrei erantzuteko erabiliko da, eta Audio Udalaren lanpoltsak arautzeko araudian xedatutakoari jarraikiz kudeatuko dira, hurrengo paragrafoan xedatutakoa gorabehera.

Aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz eratutako lan-poltsak agortzen direnean, nahitaezko ariketa kanporatzaile gehien gainditu dituzten pertsonen osatutako zerrendek izango dute lehentasuna beste lanpoltsekiko, gainditutako ariketetan lortutako guztirako puntuazioaren arabera hurrenkeran.

Berdinketarik gertatzen bada, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu dutenen alde egingo da.

Hiru urteko indarraldia izango dute lan-poltsa berriek, onesten direnetik aurrera zenbatuta, eta urtez urte luzatu ahalko da, denbora-mugarik gabe, alkate-udalburuak kontrakorik ebatzi ezean.

Hamaikagarrena. Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek errekurritzeko, aukerako berraztertzeerrekurtsioa aurkez dakioke alkateudalburuari, hilabeteko epean, eta, halaber, zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzi-bidean, bi hilabeteko epean, biak ala biak ALHAO-n oinarriak argitaratzen diren egunetik aurrera zenbatuta eta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 112, 123 eta 124. artikuluetan nahiz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoaren 46. artikuluan xedatutakoarekin bat.

I. ERANSKINA. GAITEGIA**GAITEGI OROKORRA**

1 gaia: Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Egitura eta funtsezko edukia. Espainiako Konstituzioan jasotako oinarritzko eskubideak eta betebeharrak. Oinarritzko eskubideen babesa eta horiek kentzea.

2. gaia: Estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia erkidegoak. Autonomia estatuak: esanahia eta funtsezko edukia. Eskumenak Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean banatzeko sistema.

3. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Eusko Jaurlaritzaren eskumenak. Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak.

4. gaia: Udalerrria: udalerrriaren kontzeptua eta elementuak. Udalerrria. Biztanleria. Araubide erkideko udalerrrien antolamendua. Beharrezko organoak eta organo osagarriak. Talde politikoak. Udal Antolamendurako Araudi Organikoa. Batzorde informatiboak.

5. gaia: Udal eskumenak: zehaztapen-sistema. Berezko eskumenak, eskumen partekatuak eta eskumen eskuordetuak. Zerbitzu minimoak. Zerbitzuak erreserbatzea. Toki erakundeen arautze-ahalmena. Araudiak eta ordenantzak.

6. gaia: Toki Araubidea: printzipio konstituzionalak. Toki Autonomiaren Europako Gutuna. Toki autonomia eta tutoretza. Estatuaren oinarritzko legeria eta horren arau-garapena.

7. gaia: Administrazioak Legearen eta Zuzenbidearen pean jarduteko printzipioa. Zuzenbide Publikoaren iturriak. Legea: lege motak. Ohitura. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Jardunbide administratiboa.

8. gaia: Administrazio prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Interesdunaren eskubideak administrazio prozeduran. Administrazio prozeduraren faseak. Denbora-dimentsioa. Isiltasun administratiboa.

9. gaia: Administrazio-errekurtsoak: kontzeptua eta printzipio orokorrak. Administrazio boki errekurritu daitezkeen egintzak. Administrazio-errekurtsoak izapidetzeko arau orokorrak. Errekurtso motak. Gora jotzeko errekurtsoa. Berraztertze errekurtsoa. Berrikusteko errekurtsoa.

10. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: esparru objektiboa eta esparru subjektiboa. Kontratu motak zedarritzeta. Arautze harmonizatupeko kontratuak. Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak.

11. gaia: Europar Batasuna. jatorria eta bilakaera. Europar Batasunaren instituzioen antolamendua eta eskumenak.

12. gaia: Toki ogasunak: Diru-sarrerren sailkapena. Tasak eta prezio publikoak: ezberdintasun nagusiak. Audio Udalak indarrean dituen ordenantza fiskalak.

13. gaia: Toki erakundeen aurrekontu orokorra: kontzeptua eta edukia. Aipamen berezia aurrekontua exekutatzeko oinarriari. Aurrekontua prestatzea eta onestea. Aurrekontuaren egitura. Kreditu-aldaketak: motak, kontzeptua eta izapidetzea.

14. gaia: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren testu bategina onetsi baitzen. Sektore publikoan toki administrazioen zerbitzura diharduten langile motak. Enplegatu publikoen betebeharrak eta eskubideak.

15. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Eragin-garriakoa. Audio Udalaren Estrategia Berdintasunerako.

16. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuak Prebenitzekoa. 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, Lan-arriskuak Prebenitzeko Arauketa-esparrua aldatzekoa.

17. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak babestu eta Eskubide Digitalak bermatzekoa: xedapen orokorrak, printzipioak eta pertsonen eskubideak.

18. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa: jardun publikoaren gardentasuna.

GAITEGI ESPEZIFIKOA

19. gaia: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa: esparru materiala eta printzipio gidariak. Adikzioen prebentzioaren eta arretaren ereduaren funtsezko oinarriak.

20. gaia: 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa: helburu orokorrak adikzioen prebentzioari dagokionez. Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabeko eta gazteen esparruan, familian nahiz hezkuntza-esparruan.

21. gaia: 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa: Gizarteratzea. Arreta-sistema publikoen printzipio orokorrak nahiz esparru horretan esku hartzeko arloak eta irizpideak.

22. gaia: 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa: Euskadiko administrazio publikoen arteko eskumen-banaketa. Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien nahiz udalen eskumenak.

23. gaia: 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa: adikzioen arloko koordinazio-, zuzendaritza-, kontsulta- nahiz aholkularitza-organoak eta gizartearen parte-hartzerakoak.

24. gaia: Adikzioei buruzko Euskadiko Plana: sarrera, esparru kontzeptuala eta Planaren printzipioak.

25. gaia: Adikzioei buruzko Euskadiko Plana: Hasierako egoeraren diagnostikoa.

26. gaia: Adikzioei buruzko Euskadiko Plana: Planaren lehentasunak, helburuak, ardatzak eta ekintzak.

27. gaia: Adikzioei buruzko Euskadiko Plana: Planaren jarraipena eta ebaluazioa.

28. gaia: Audio Udalerriko Adikzioen Tokiko Plana.

29. gaia: Adikzioei buruzko tokiko planen prestakuntza: definizioa eta oinarri metodologikoak.

30. gaia: Adikzioei buruzko tokiko planen prestakuntza: planen atalak.

31. gaia: Adikzioen esparruko langile teknikoaren funtzioak.

32. gaia: Drogen definizioa eta kontzeptu orokorrak. Eredu bio-psiko-soziala.

33. gaia: Drogen sailkapenak. Parametro desberdinen arabera katalogazioa.

34. gaia: Alkohola: kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

35. gaia: Opiazeoak: substantziak, eta kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

36. gaia: Kokaina: kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

37. gaia: Cannabisa: kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

38. gaia: Droga sintetikoak: kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

39. gaia: Anfetamina sulfatoa (speed-a): kontsumitzearen efektuak eta ondorioak.

40. gaia: Drogen behatokiak: Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia (DTEB). Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokia (DAEB). Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia (DMEB).

41. gaia: DAEB-en 2020ko txostena alkoholari, tabakoari eta legez kanpoko drogei buruz Espainian.
42. gaia: Alkohol-kontsumoa eta genero-indarkeria. Droga-mendekotasunen esparruko profesionalen ikuspegi juridiko eta soziala.
43. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Portaera-adikzioei buruzko monografikoa.
44. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Cannabisaren kontsumoari buruzko monografikoa.
45. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Alkoholdun edarien kontsumoari buruzko monografikoa.
46. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Tabakoaren kontsumoari buruzko monografikoa.
47. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Psikofarmako eta substantzia dopagarriei buruzko monografikoa.
48. gaia: Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta. Legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko monografikoa.
49. gaia: Tabakismoa: epidemiologia, kontsumoaren ondoriozko osasun arazoak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Planekin erkatutako helburuak.
50. gaia: Drogei buruzko Europako Txostena 2020.
51. gaia: ESPAD 2019 inkesta (laburpen exekutiboa).
52. gaia: EB-aren estrategia drogen aurka borrokatzeko.
53. gaia: Adikzioei buruzko Estrategia Nazionala 2017-2024 aldirako. Sarrera, adikzioen egoera Espainian eta esparru instituzionala.
54. gaia: Adikzioei buruzko Estrategia Nazionala 2017-2024 aldirako. Xedea, helburu orokorrak, ikuspegia, baloreak, printzipio gidariak, jardunaren esparrua, jomugak, jardunaren arloak eta helburu estrategiakoak nahiz zeharkako arloak.
55. gaia: EDADES 2019/2020; alkoholari, drogei eta bestelako adikzioei buruzko inkesta Espainian.
56. gaia: Espainiako portaera-adikzioei buruzko 2019ko txostena.
57. gaia: Online jokalariaireneko profilaren 2019ko analisia (Jokoaren Antolaketarako Zuzendaritza Nagusia).
58. gaia: Espainiako biztanleria klinikoaren joko-nahasmenduen arrisku-faktoreen azterketa eta analisia.
59. gaia: Teknologia berriekiko eta sare sozialekiko adikzioa gazteengan: erronka berria.
60. gaia: Teknologia berriekiko eta sare sozialekiko adikzioa ume eta nerabeengan. Hezitzaileentzako gidaliburua.
61. gaia: Hedabideak eta alkoholaren kontsumoari buruzko informazioaren tratamendua.
62. gaia: Zahartzea eta adikzioak. Drogomedia monografikoa.
63. gaia: Drogen kontsumoaren joerak. Drogomedia monografikoa.
64. gaia: Genero-ikuspegia adikzioetan. Drogomedia monografikoa.
65. gaia: Desberdintasun sozioekonomikoak drogen kontsumoan. Drogomedia monografikoa.

66. gaia: Adikzioen Komunitate Prebentziorako Euskadiko Toki Baliabideen nahiz Lantalde Teknikoen beharrei buruzko 2019ko azterlana.

67. gaia: Erantzun sanitarioak eta sozialak drogekin erlazionatutako arazoei.

68. gaia: Eusko Jaurlaritzaren Adingabeak eta Alkohola Programa.

69. gaia: Alkohol-kontsumoei, eta horrekin erlazionatutako ohitura eta jarrerei buruzko azterlana. Nerbioigoiaren Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

70. gaia: 5/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortu eta zehaztekoa.

71. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa: Xedapen orokorrak. Prestazioak eta zerbitzuak, antolamendu funtzionala, lurralde antolamendua eta planifikazioa.

72. gaia: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa: Eskumen-, antolakuntza-, kontsulta- eta partaidetza-araubidea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzazioa.

73. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (1etik 34ra arteko artikulua eta 1. eranskina).

74. gaia: Udal eskumeneko informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

75. gaia: Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialerako udal eskumeneko zerbitzua: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

76. gaia: Parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua udal eskumeneko gizarte zerbitzuen alorrean: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

77. gaia: Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal eskumeneko eguneko arreta-zerbitzua: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

78. gaia: Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal eskumeneko gauerako harreara-zerbitzua: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

79. gaia: Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako udal eskumeneko ostatatze-zerbitzua / tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzua: definizioa, helburuak, prestazioak, biztanleria jasotzailea eta sartzeko betekizunak.

80. gaia: Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak. 2017-2020 aldia.

81. gaia: Euskadiko IV. Gizarteratze Plana 2017-2021: esparru kontzeptuala eta normatiboa. Diagnostikoa.

82. gaia: Euskadiko IV. Gizarteratze Plana 2017-2021: printzipioak, ardatzak, esku-hartzeko esparruak, helburuak eta jomugak.

83. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onetsi baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea. (1etik 32ra arteko artikulua).

84. gaia: Kudeaketa publikoaren planifikazioa: planifikazio estrategikoa eta operatiboa eta horren aplikazioa tokiko gobernuetan.

85. gaia: Kalitatearen kudeaketa administrazio publikoetan.

86. gaia: Dirulaguntzen Lege Orokorraren atariko titulua, lehenengo titulua eta bigarren titulua.

87. gaia: Aurrekontuaren egitura. Gastuen aurrekontuko kredituak: zedarritzea, egoera eta lotura juridikoaren mailak.

88. gaia: Erabateko Kalitatezko Kudeaketarako Bikaintasun Eredu Europarra: aplikatzeko irizpide nagusiak.

89. gaia: Etengabe hobetzeko estrategiak. P. D. C. A. zikloa.

90. gaia: Ikerketarako eta analisirako teknika kualitatiboak: eztabaida taldeak, focus group-ak, ikerketa parte-hartzeari irekitako ekintza, etab.

Arau-erreferentziak informatzeko baino ez dira eman, beraz, hala dagokionean, hautapen-prozesu honetako izangaien erantzukizuna da, aipatutako arauak eta legeak etengabe egokitu eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzerakoan indarrean dauden arau eta legeen ezagutza eskatuko da.

Txosten eta estatistikei dagokienez, txosten bakoitzerako adierazi den urteari egiten diete erreferentzia. Ez bada aipatzen erreferentziako urtea, gaiaren inguruko txosten berrienari erreferentzia egiten diotela ulertu beharko da.

BIGARRENA. Argitaratzea ALHAO-n 2020ko enplegu-eskaintza publikoari dagokion psikologo plaza bat (1) hautapen-prozesuaren oinarri espezifikoa eta hautapen-prozesuaren deialdia egitea. Prozesu hori 2020ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2020ko abuztuaren 10eko 89. ALHAO-n argitaratu zen.

HIRUGARRENA. Argitaratzea Estatuko Aldizkari Ofizialean 2020ko Enplegu-eskaintza publikoari dagokion psikologo plaza bat (1) hautatzeko prozesuaren oinarri espezifikoaren laburpen bat eta hautapen-prozesuaren deialdia, oinarri espezifikoa argitaratu diren ALHAO adierazita. Prozesu hori 2020ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2020ko abuztuaren 10eko 89. ALHAO-n argitaratu zen.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aukerako berraztertze-errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko Eduki Administrazioaren Epaitegian, txandaka, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2021eko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE